

**INFORMAZIO-OHARRA**

Justiziako ministroaren maiatzaren 8ko JUS/394/2020 Aginduak, Lan Segurtasunaren Eskema eta COVID-19ren aurrean Justizia Administrazioa Deseskalatzeko Plana onartzen dituenak, Justizia Administrazioan arratsaldeko txandak ezartzeko aukera jasotzen du. Agindu horretan adierazten denaren arabera, horietan parte hartzea, printzipioz, borondatezkoa izango da, eta, langile boluntarioek soilik betetzen ez badituzte, txandakako nahitaezko txanda ezarri ahal izango da. Hori dela eta, arratsaldeko txandak ezarriko diren organo eta bulegoetan dauden langile-beharrei erantzuteko interesa duten funtzionarioek maiatzaren 18ra arteko epea izango dute, egun hori barne, izena emateko. Horretarako, mezu elektronikoko bat bidali beharko dute r-humanos@euskadi.eus helbidera, interesa adieraziz.

Arratsaldeko txanda aipatutako Aginduan ezarritako baldintzetan egingo da.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 11

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARITZA



LAN ETA JUSTIZIA SAILA
DEPARTAMENTO DE TRABAJO
Y JUSTICIA